



Kontsumoari buruzko erakusketa ibiltaria Tolosan, igandera arte

HELBURUAK ▶ Telekomunikazioen esparruan erabiltzaileek dituzten eskubideen berri emango du ▶ 2



Kultur Etxean, Eusko Jaurlaritzako eta Tolosako Udaleko ordezkariak atzo aurkezpenean. ESTI EZEIZA

IRURA ▶

San Miguel jaiak ate joka, bi asteburuko egitarau oparoarekin

Bihar, 19:30ean, Herensugearen etorrerak iragarriko du jaien hasiera ▶ 4

LEITZA ▶

Garaipen berri bat eskuratu du Aurrerak

Etxarri-Aranatzeko taldeari 1-0 irabazita goiko postuetan dira; gazteak asteburuan hasiko dira ▶ 7



Aurrerako jokalaria bat. J. ASTIBIA

ARESO ▶

Udalak herriko kaleen zolaketa lanak esleituko ditu

Bihar eguerdian burutuko dute, aparteko udal batzarrean ▶ 7

ALEGIA ▶

«Bertsolariak eta giro ona», Kalebeherako jaien onena

Alegiko Gaztetzeko ordezkariak «gustura» jaiak emandakoarekin ▶ 5



Patata tortilla lehiaketa egin zuten egitarauaren baitan. N. URBIZU

TOLOSA ▶

Kultur eskaintza zabala abiarazi dute

Askotariko tailerrak Kultur Etxean ▶ 3

HEZKUNTZA ▶

Begirale ikastaroa egin ahalko da Laskorainen

Urtxintzarekin elkarlanean antolatuko duen kurtsoak maiatza bitarteko iraupena du

E. EZEIZA

Laskorain ikastolak, Urtxintxa eskolarekin elkarlanean, begirale ikastaroa antolatu du. Jardunaldiak ikastolan bertan izango dira, urrtik maiatza bitarte, ostiral eta larunbatetan.

Ostiraletan, 16:00etatik 20:00etara izango dira eskolak, eta larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara. Bestalde, ikasturtean zehar lau asteburu osoko egonaldiak egingo dituzte, asteburua aterpe batean igaroz, eta bertan lo eginez. Astebukaera horietan, larunbat goizean aterako dira ikasleak herritik eta igande arratsaldean itzuli.

Ikastaroa gainditu ahal izateko saio guztiak joatea beharrezkoa izango da, eta baita eskatutako talde lanak kalitatezkoak izatea ere. Gainera, kurtsoan zehar jarrera positiboa izatea eta talde giroan murgiltzea baloratuko da. Honekin batera, titulua lortzeko, prestakuntzako 200 orduak burutu eta jarritako baldintzak gainditu beharko dituzte ikasleak. Eta lehen aipatu bezala, ikastaroan zeharreko banakako zein taldekako lanak ongi egin beharko dituzte.

Eskoletara joateaz gain, praktiketako 120 ordu burutuko dituzte begiraleak. Eta honen inguruko memoria bat idatzi eta aurkeztuko dute. Baldintza hauek guztiak betetzeko gero, Eusko Jaurlaritzako titulazio homologatua jasoko dute.

Ikastaldia lau orduko 50 saiotan garatuko da. Jardunaldiak, sail ezberdinetan lan egiten duten berrogeita hamar irakasleren artean prestatzen dituzte.

iragarki laburrak ▶**SALGAI.**

Motorra. Suzuki Katana, 49 zmk-koa, urez refrigeratua eta egoera onean. Deitu 943 65 29 32 edo 635 20 56 77 zenbakira.
Txakurkumeak. Setter ingelesa (Leveling) arrazako txakurkumeak salgai. Txertatuak. Gurasoak oilagorretan trebeak. Deitu 647 14 40 70era.

LANA

Sukaldaria. Tolosaldeko taberna baterako sukaldean dakien

persona bat behar da. Telefona: 686 03 29 01

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91

Psikopedagogoa.

Psikopedagogian lizentziatuak banakako laguntza saioak ematen ditu Tolosan. 670 02 11 22.

Tabernaria. Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentatua. 635 74 52 91.

HEZKUNTZA ▶



Eusko Jaurlaritzako eta Tolosako Udaleko ordezkariak, atzo, erakusketaren aurkezpenaren. E. EZEIZA

Kontsumo erakusketa ibiltaria hemen da

Igandea bitarte izango da ikusgai Kultur Etxean; Telefonia eta Internet inguruko informazioa eskainiko dute bertan

ESTI EZEIZA

Iritsi da Tolosara kontsumoari buruzko erakusketa ibiltaria. Atzo aurkeztu zuten, Kultur Etxean, Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo eta Industria Seguratasuneko Zuzendari den Ruben Mendiolak eta Omic enpresako ordezkariak. Bertan izan ziren baita ere, Olatz Peon, Tolosako alkateordea eta Josemi Gomez Turismo, Enplegu eta Garapen zinegotzia.

Oro har, herritarrei kontsumoaren inguruko prestakuntza eta informazioa ematea du helburu egitasmo honek. Beraien eskubideak eta betebeharrak jakinaraziz. Telefonia eta Internet erakusketa igandera arte egongo da ikusgai. Astegunetan eta larunbatean, 10:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Igandean berriz, 12:00etatik 14:00etara irekiko dute ateak. Egun hauetan, bederatzi taldek burutuko dituzte bisita gidatuak, eta hauek gain, edozein ere joan ahal izango da Kultur Etxera.

2005eko urriaz geroztik Euskal Autonomia Erkidegoko

hainbat udalerritan egon da erakusketa ibiltaria, eta dagoeneko beste 42 tokitarako bisitaldiak aurreikusita dituzte. Proiektu honen barruan, hiru gai ezberdin jorratzen dituzte: produktuaren etiketak; telefonia eta internet; eta bidaiak eta garraioak. Hala, Udal bakoitzak nahi duen gaia aukera dezake.

Erakusketa ibiltaria kontsumitzaileei eta erabiltzaileei eumien eskubideen eta betebeharraren berri emateko Jaurlaritzak garatutako ekimenen artean berriena da. Jardun honen bitartez, kontsumoaren arloan herritarrek ohiko moduan egiten dituzten eskaerei erantzuna eman nahi diete.

Kontsumo guztiz txertatuta dago gure artean, eta gaur egun, gizartearen funtzionamenduari funtsezko elementua ere bada. Hori dela eta, Kontsumo sailarentzat «oso garrantzitsua da kontsumitzaileak prestatzea eta informaraztea, kontsumo arduratsua, kritikoa eta zentzuduna sustatzearen». Honekin batera, Ruben Mendiolak azaldu zuen, kontsumitzaileen eskubideak aurrera eramateko bide onena,

ongi informaturik egotea dela. Erreklamazioak egitea beharrezkoa dela gaineratu zuen baita ere. «betiere, arrazoituak direnean».

Telefonia eta Internet

Telefonia finkoa, mugikorra eta Internet dira erakusketa honen protagonista. Bertan, telekomunikazioen esparruan erabiltzaile gisa dituen eskubideen berri izateko hainbat gako ematen zaizkio jendeari, kontsumo arduratsua egin dezan.

Erakusketaren hasieran, sarrearako modulua dago; hor, Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzaren eginkizunak zeintzuk diren, kontsumitzaileek zein eskubide eta betebeharrak dituzten, eta kontsumoari buruzko erreklamazio bat jartzeko zein bide jarraitu behar den azaltzen da.

Bestetik, erruleta, puzzle eta urkatua bezalako joko elkarrengarekin, telefonia finkoaren, mugikorren eta Internet sarearen erabileraren inguruko informazioa eskaintzen dute.

Azken ondorio gisa, eguneroko bizitzan aplikatu daitezkeen gomendio praktikoa ikusi ahal dira, betiere, aurreko gaien inguruan. Honetaz gain, erakusketa ikustera gerturatzeko denak, Eusko Jaurlaritzaren Kontsumo Zuzendaritzak duen webgunean (www.kontsumo.net) sartu ahal izango du.

iragarki laburrak ▶**LAN HEZKUNTZA**

Gidariak. Plaza libreak betetzeko behar dira: Eusko Jaurlaritzan, Udaltxeetan eta Erakunde

Publikoetan. 943313782.

Harreragileak -Administrari laguntzaileak. behar dira Erakunde Publikoetan. 943313782.

KULTURA ▶

Kultur tailerretan eskaintza zabala, ikasturte berrirako

Antzerkia, argazkigintza, baleta, dantza garaikidea, egurra lantzea, ehoziri lana, pintura, marrazketa, eskulanak eta zeramika eskainiko ditu Kultur Etxeak

IÑIGO TERRADILLOS

Ikasturte berriari ekin diogu, eta horrekin batera, Kultur Etxeak prest ditu aurtien eskainiko dituen kultur tailerrak. Hala, 9 tailer desberdin egiteko aukera izango da, eta horietan izen emateko, ikasle zaharrentzat, hau da, iaz ere aritu zirentzat, hil honen 22a izango da epea. Epe horretan lekua erreserbatuko zaie, baina epe horretatik kanpo ikasle berrien eskubideak izango dituzte. Ikasle berriek hilaren 25etik 29ra izango dute matrikula egiteko aukera. Eskaerak lekuak baino gehiago direnean interesatuen zerrendak osatuko dira, eta matrikula eskubidea zozketa bidez erabakiko da. Kasu hauetan epea beste aste-bete luzatuko da. 8 matrikula baino gutxiagoko taldeak bertan behera gera daitezke.

Izen-ematea Kultur Etxean egin beharko da, 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara. Informazio gehiago nahi duenak 943 67 03 83 edo 943 67 03 88 zenbakietan edota www.tolosakoudala.net helbidean jaso ahalko du.

KULTUR TAILERRAK ▶

Ikastaroa	Adina	Ordutegiak	Egunak
Antzerkia	Helduak	19:30-21:30	Astelehena, asteazkena
Argazkigintza	Helduak	18:30-21:30	Zehaztu gabe
Baleta	4 urte, Kultur Etxea	17:30-18:30	Astearte, osteguna
	5 urte, Kultur Etxea	17:30-18:30	Astelehena, asteazkena
	6 urte, Kultur Etxea	18:30-19:30	Astearte, osteguna
	7 urte, Kultur Etxea	18:30-19:30	Astelehena, asteazkena
	8 urte, Gorosabel	17:15-18:15	Astearte, osteguna
	9 urte, Gorosabel	17:15-18:15	Astelehena, asteazkena
	10 urte, Gorosabel	18:15-19:15	Astearte, osteguna
	11 urte, Gorosabel	18:15-19:15	Astelehena, asteazkena
	12 urte, Gorosabel	19:15-20:15	Astelehena, asteazkena
	13 urte, Gorosabel	19:15-20:15	Astearte, osteguna
	Aurreratua, Gorosabel	20:15-21:45	Astearte, osteguna
	Puntak 1, Gorosabel	17:30-18:30	Ostirala
	Puntak 2, Gorosabel	18:30-19:30	Ostirala
Puntak 3, Gorosabel	19:30-20:30	Ostirala	
Dantza garaikidea	Helduak, Gorosabel	20:15-21:45	Astelehena, asteazkena
Egurra lantzea	Helduak	15:00-17:00	Astearte, osteguna
Ehoziri lana, bainika eta patchworka	Helduak	15:00-19:00	Astelehena
Pintura/marrazketa	Helduak	10:30-12:30	Astelehena, asteazkena
		10:30-12:30	Astearte, osteguna
		15:30-17:30	Astelehena, asteazkena
		15:30-17:30	Astearte, osteguna
		18:30-20:30	Astelehena, asteazkena
		18:30-20:30	Astearte, osteguna
Pintura/eskulanak	6-10 urte	17:30-18:30	Astelehena, asteazkena
		17:30-18:30	Astearte, osteguna
Zeramika	Helduak	10:30-12:30	Astearte, asteazkena
		15:30-17:30	Astelehena, asteazkena
		18:30-20:30	Astelehena, asteazkena


Matrikulazioan aukerak

Matrikulazioari dagokionez, Tolosaldean erroldatutako familia ugariak %50eko murriztapena izango dute ikastaro guztietan (agiri eguneratuaren fotokopia beharko da). Bestalde, ordainketa bi zatitan egiteko aukera ere badago: lehena, %50, matrikula garaian, eta beste %50a abenduaren lehenengo hamabostaldian eginez. Matrikula egiteko ezinbestekoa izango da aurreko urteko tarifa osoa ordainduta edukitzea. Ikasturte osoko iraupena duten ikastaroetan, lekua egonez gero urtariletik aurrera, interesatuek matrikula osoaren 2/3 ordaindu beharko dute, eta martxotik aurrera erdia. Halaber, ikastaroa hasi aurretik baja eskatzen dutenek, ikastaro osoaren prezioko %20a jasotzeko eskubiderik ez dute izango. Abenduaren 15a baino lehenago baja adierazten dutenek (nahitaezko arrazoiarengatik), bigarren kuota ez ordaintzeko eskubidea izango dute.

Ordaindu beharrekoa aldatu egiten da tailerraren arabera: antzerki tailerra 143,90 euro; argazkigintza 193; baleta (4 urtetik 13ra eta aurreratua) eta pintura/eskulanak 117,90; baleta (puntak) 43,30; dantza garaikidea, egurra lantzea, ehoziri lana, pintura marrazketa eta zeramika 161,20 euro.

Iazko datuak ere eman ditu Kultur Etxeak. 336 ikaslek hartu zuten parte tailerretan, eta horietatik 128 baletan eta 80 pinturan aritu ziren.

EZBEHARRA ▶

Pertsona bat hil da trenak harrapatuta

ERREDAKZIOA

Herenegun gauean, pertsona bat hil zen, Tolosan, trenak harrapatuta. Ertzaintzak jakitera eman duenez, 22:45 inguruan jazo zen ezbeharrak, Tolosako tren geltokian. Bertatik igarotzera zihoan tren batek 60 urte inguruko gizonzkoa harrapatu zuen, eta istripuaren lekuan bertan zendu zen. Bestalde, erredakzio hau isterako oraindik identifikatu gabe zuen ertzaizak gorpua, eta ikerketa zabaldu duela azaldu du istripua nola gertatu zen jakite aldera.

GIZARTEA ▶

Boluntariotzako oinarrizko ikastaroa antolatu dute Udaleko Gazteria zerbitzuak eta Hezkide eskolak

20 orduko iraupena izango du ikastaroak; urriaren 27ra arte izango da izen emateko aukera

I. TERRADILLOS

Tolosako Udaleko Gazteria zerbitzuak, Hezkide eskolarekin elkarlanean boluntariotzako oinarrizko ikastaroa jarriko du abian aurki.

Ikastaro hau azaroaren 4ean, 11n, 18an eta 25ean eskainiko dute. Guztira 20 orduko iraupena izango du, eta eskolak, aipaturiko egunetan izango dira, 09:00etatik 14:00etara. Tolosako kultur etxean, Topagunearen gunean, hain zuzen ere. Ikastaroa euskaraz izango da, eta bertan izena eman nahi dutenek, ez dute ordaindu be-

harririk izango. Ondorengo lekuetan egin ahalko dira matrikulak: Hezkide eskolan eta Tolosako Antonio Maria Labaien kultur etxean. Izen emateko azken eguna urriaren 27a izango da.

Ikastaroan parte hartu ahal izateko ondorengo baldintzak bete beharko dituzte izena eman nahi dutenek: 18 urte izatea beharrezkoa izango da; elkarteetako boluntarioa izatea ere beharrezkoa da; boluntario lanean hasteko interesa duen ororentzat zuzendua izango da boluntariotzako oinarrizko ikastaroa, eta gaiare-

kiko interesa izatea ere baldintza garrantzitsua izango da izena emateko.

Bestalde, ondorengo gaiak jorratuko dituzte ikastaroan zehar: Gaur egungo errealitatearen azterketa. Munduaren egoera ezagutu; motibazioak landu; boluntarioaren definizioa; komunikazio trebetasunak: komunikazio estiloak, empatia, entzutea, gatazken konponketa...; boluntariotza legea eta plana; boluntariotza elkarre batzuen aurkezpena.

Boluntariotzako oinarrizko ikastaro honetan parte hartzeko interesa dutenek, telefono

zenbaki hauetara deitu ahalko dute zalanztak argitu aldera: Hezkide Eskolako telefono zenbakia 943 31 14 74 edota Tolosako kultur etxeko zenbakia 943 67 03 83.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inketa. «Zer aukerazten duzu oporretan ostatu hartzeko? Landa-ebrea, hotela, kanpina, apartamentua ala aterpea?»
 Emaiguzu zure iritzia!

IRURA ▶ SAN MIGUEL JAIK

EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

BIHAR

19:30. Herensugearen etorrera joaldunekin, suziria, alkatearen agurra eta kalejira buruhandi eta erraldoekin.

21:00. Barrikotea San Migel plazan.

24:00. Dantza-piko saioa San Migel plazan Aiko taldearekin.

ETZI

11:00. Marrazki Lehiaketa txikienezat San Migel plazan.

12:00. Patata Tortilla Lehiaketa San Migel plazan.

13:00. Apar-festa Zaharren Biltokiaren aurrean.

13:30. Gazteen dantza-soka San Migel plazan.

14:30. Gazteen bazkaria Zaharren Biltokian eta haur eta gaztekoena San Migel plazan.

15:30. Haurrentzako ludoteka eta tailerrak Trinketean.

17:30. Buruhaundiak kalejiran Trinketetik Loatzo plazara.

18:00. Ume festa Pirritx eta Porrotxekin Loatzo plazan.

20:00. Sagardo dastaketa San Migel plazan.

00:00. Kontzertua San Migel plazan: Pikutara eta Su Ta Gar.

00:15. Alazan taldearekin *Coctel Latino* dantzaldia garbilekuaren ondoko plazan.

HILAREN 24, IGANDEA

11:00. Meza Nagusia.

12:30. Gorritiren abereak San Migel plazan.

17:30. Herri kirolak frontoian: Nazabal eta Olasagasti aizkolariak eta Iñaki eta Inaxio Perurena harrijasotzaileak.

18:30. Galdakaoko Andra Mari Dantzari taldea frontoian. Ondoren erromeria San Migel plazan Legoya taldearekin.

HILAREN 26, ASTEARTEA

17:00. Jubilatuen jokuak San Migel plazan eta Biltokian.

HILAREN 28, OSTEGUNA

18:00. Irurako Pilota Eskolako haurren arteko pala eta xare partidak Trinketean.

19:30. Kalejira Trinketetik

Share elkarteraino Loatzo musika eskolako trikitilariekin

eta buruhandi eta erraldoekin. Ondoren txistor jatea Share elkartearen atarian.

22:30. Lakrikun taldearen *Zintzilik* antzerkia frontoian.

HILAREN 29, OSTIRALA

09:00. Goiz eresia txistulariekin.

11:00. Herriko zaindariaren ohorezko meza nagusia.

11:45. Irurako dantzari txikien saioa San Migel plazan.

Ondoren hamaiketako herrikoia San Migel plazan eta Gazte Alaiak elkartean Maialen Lujanbio eta Amaia Agirre bertsolariak alaitua.

13:00. Loatzo musika eskolako ikasleen saioa San Migel plazan.

18:00. Alegia, Anoeta, Berastegi, Villabona eta Irurako dantzari txikien saioa.

20:00. Isidro Larrañagaren akordeoi orkestraren kontzertua San Migel plazan.

23:30. Gariren kantaldia San Migel plazan. Ondoren dantzaldia Nekin taldearekin.

HILAREN 30, LARUNBATA

10:30-14:30. Gazteboentzako parkea Loatzo plazan.

13:30. Ezkonduen Dantza Soka San Migel plazan.

14:30. Ezkonduen bazkaria Aizpurua jatetxean.

16:30-19:30. Euskal kirola, jolasak eta haur-animazioa Keimarekin San Migel plazan.

20:00. Bike Trial Show erakustaldia Loatzo plazan.

23:00. Play-back jaialdia frontoian. Ondoren frontoitik

San Migel plazaraino herensugea eramango da prozesioan eta azken trakarekin erreko da. Jarraian dantzaldia San Migel plazan Laket taldearekin.

URRIAREN 1, IGANDEA

12:00. Meza Nagusia.

Ondoren Irurako dantzari txikien emanaldia San Migel plazan.

14:30. Jubilatuen bazkaria Zaharren Biltokian. Bazkariaren ondoren jokuetako sarien banaketa eta dantzaldia.

BELAUNTZA ▶

Pilota eskolako klaseak etzi hasiko dira

Belauntzako Pilota eskolako klaseak etzi hasiko dira. Larunbatero egingo dituzte saioak, 10:00etatik 12:30era. Pilotan aritzeko interesa duten haur eta gazteek herriko frontoira bertaratzera beste-rik ez dute parte hartzeko.

IRURA ▶

Ludoteka ezkonduen bazkarian

Irurako San Migel jaien baitan, hilaren 30ean egingo dute ezkonduen bazkaria. Tarte horretan ludoteka antolatuta dute 3 eta 10 urte bitarteko haurrentzako. Ludotekako langileak egongo dira haurrekin eta 14:30en hasiko da zerbitzua. Haurrak jolas parkean utzi beharko dira eta gero 18:00etan plazan jaso. Beren haurrak ludoteka utzi nahi dituzten gurasoek izena eman behar dute aurretik, liburutegian, ludoteka edo udaletxean. Bestalde, etzi, ludoteka egingo da Trinketean. Haurrak bertan uzten dituzten gurasoak 17:30ean joan behar dira haurrak jasotzera.

VILLABONA ▶

Oskar Zelarain etxeratzeko manifestazioa

Oskar Zelarain billabonatar euskal preso atxilotu zutela lau urte bete ziren atzo. Horregatik, Villabonako Amnistiaren Aldeko mugimenduak gaur, 20:00etan, herriko plazatik aterako den manifestazioa deitu du. Bertan aipamen berezia izango du Iñaki de Juana euskal preso burtan aritzen ari den gose greba mugagabeak.

Herensugea, jaiak pizteko prest

Bihar hasi eta hurrengo asteburura arte, hainbat ekitaldi San Migel jaietan

IMANOL GARCIA

Aurtengo Irurako San Migel jaietako bihar emango diote hasiera. Herensugea izango da, ohi-turari jarraiki, iragarpena egingo duena. Suziria, alkatearen agurra eta kalejira izango dira jaien hasierako beste ekitaldiak.

Ez da berrikuntza nabarmen izan egitarauan, herritarrek jaietako gustura dauden seinale. Ez dira faltako, beraz, arrakasta izan ohi duten ekitaldiak: rock kontzertua, aurtengo Su Ta Gar eta Pikutara taldeekin; barrikotea eta sagardo dastaketa herrikoia; play-back jaialdia; erromeria eta dantzarako taldeak; haurren-



Su Ta Gar taldeak Iruran emango du kontzertua etzi gauean. HITZA

tzako festa —aurten Pirritx eta Porrotxekin— eta parkeak...

Berrikuntza eta aldaketaren artean aipatzekoa da aurtengo sagardogileei egingo zaien omenalditxo. Bestalde, play-back jaialdia bigarren asteburuko larunbatean izango da, eta ez ohi bezala ostiralean, San Migel Eguna izango baita eta nahiko ekitaldi izaten baitira egun horretan. Hain zuzen, parrokiko lanak oraindik amaitu ez direnez, santuaren eguneko meza nagusia seguruenik frontoian egingo dute.

Ekitaldiz beteriko bi asteburu luze, beraz, jaietaz gozatuko, bai irurarrek, bai kanpotik joaten direnek ere. Guztiak herensugea noiz etorriko zain.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

ALBIZTUR ▶ HIRIGINTZA



Hiru autobus geltoki jarri dituzte herrian

N. Urbizu ▶ Albizturren hiru autobus geltoki jarri berri dituzte. Oraindik martxan ez badira ere, urrirako espero dute zerbitzua eskaintzen hastea. Hirurak Albiztur zeharkatzen duen Kale Nagusian zehar daude jarriak, lehen ere autobusak egiten zituen geltokietan, hain zuzen. Albizturko Udalak eraman du aurrera proiektua, eta Aldundiaren diru-laguntza jaso du horretarako. Kolorea erabakitzen ari dira oraindik, artilekolorea eta zuria artean delarik. Ziurrenik, ilunagoa izango da. Teilatua izango dute geltoki berri hauek, euria eta hotza egiten duenean babespean egoteko. ESTI EZEIZA

IKAZTEGIETA ▶

Bihotza hobe ezagutzeko hitzaldia, gaur

Gaur 17:00etan, Kutxak antolatutako hitzaldi bat egongo da Ikaztegieta udal liburutegian. Gaia *Bihotza: biziaren motorra*, izango da. Helburua gure motor nagusiaren funtzionamendua eta egitura ezagutzeko da. Aztertuko dituzten gaiak honako hauek: bihotzaren egitura eta eginkizunak, zirkulazio-sistema, zainak eta arteriak, gure bizi-ohiturek nola eragiten dioten bihotzari, ohitura osasungarriak eta kaltegarriak... Sarreara doakoa da.

BIDEGOIAN ▶

Eskulan ikastaroa urriaren lehen astean hasiko da

Eskulan ikastaroa martxan da Bidegoianen. Urrik abendura bitarte izango da, eta lehen eguna, urriaren 3a. 14:30etik 17:00etara izango dira eskolak, balio anitzeko gelan. 26 euro balioko du. Izen-ematea Bidegoiango udaletxeko Gizarte Zerbitzuetan egin behar da, 943-68 11 28 telefonoan, eta bihar amaituko da epea.

ALEGIA ▶ JAIK

Bertsolariak eta bertako giroa Kalebeheran, aurtengo onena

Gaztetxekoek antolatutako jaietan euriak ez du asteburuko egitaraua zapuztu

NEREA URBIZU

Alegiko Gaztetxeak antolatzen dituen aurtengo Kalebeherako jaietan euriak eta hezetasunak lagundu dute, baina horregatik ez dira okerragoak izan. Bertsolarien saioa izan da, herritar askoren ustetan, arrakastatsua.

Ibai Esoain, Xabier Sukia oriotarrak eta Gorka Tolosa hernaniarrak izan ziren larunbateko afaria alaitzen. «Lehen-go urtean baino giro hobea izan da aurtengoa. 100 lagundik gora bildu ginen. Espontaneoren bat ere aritu zen bertsoetan...», Gaztetxeko kide batek azaldu zuenez.

Ostiralean umeek gustura egin zuten korrika buruhandien aurretik —baita batzuk atzetik ere—. Trikitilariak alaitu zuten giroa ere, Eugeniok eta Aitziberrek, hain zuzen.

Pala Txapelketa larunbatean eta igandean egitekoa zen baina, azkenean, dena larunbatean egitea erabaki zuten. Finala ere orduantxe jokatu zuten. Hasiera batean Kalebeherako pilotalekuan egitekoak ziren norgehiagokak, baina sei partaideek azkenean Alegiko frontoi itxian egin zuten txapelketa. Finalera Haritz eta Jon iritsi zi-

ren, eta garaipena Haritzentzat izan zen, 12-2 geratuz.

Haur eta gaztetxoek egindako eskuz pilotako norgehiagokak ere bertan egin ziren. 7 urte artekoen finalean Kepa eta Julen aritu ziren Aitor eta Ikearren aurka. Benjaminen finalean Ane eta Aratz, Ibai eta Gorkaren aurka. Alebinen artekoan Xabi eta Iñigo, Amaia eta Beñaten aurka. Azkenik, infantilen artekoan Beñat Arandia eta Beñat Zabala, Eneko eta Iñaki bikoteak aritu ziren.

Trikitilariak larunbatean egon behar ziren hasieran baina azkenean ez zen ezer izan. Dena dela, «Kalebeherako plazan jarritako txosnak eguna argituta itsi genituen», erdi parriz gogoratu zuten Gaztetxekoek. Ume jolasetan, heldu batek baino gehiagok nahiko zuten parte hartu, horren «ondo pasa» zutela ikusita. Betiko jolasak: betikoak, gustukoenak direlako.

Txakolin dastaketan ere jende andana bildu zela esan zuten Gaztetxekoek igandean, «herriko jende dezente bildu zen». Txosnetan bildutako dirua datorren urtean Kalebeherako jaiak berriro ere antolatzeko bideratuko dute, egin ohi duten bezala. Beraz, Gaztetxe-



Haurren jolasak, azkenean, pilotaleku itxian egin zituzten. A. GOIKOETXEA

koen esanetan, «eguraldia txarra izan da, baina jendeak ondo erantzun du. Gainera, hurrengo urtean berriz festa hau egiteko aukera izango dugu»; hurrengo urteari begira, beraz, dagoeneko.

Taberna · Jatetxea
alokatzen da
— Alegian —
943 65 28 16
629 91 19 36

ALEGIA ▶

Dantzari txikien ikasturtea urritik aurrera izango da

Alegiko Dantzari-txiki taldea ikasturte berriari hasiera ematera doa. Euskal Dantza ikastaroak asteazkenero izango dira, astean egun batez. Urriaren hasiko dira eta 6 urtetik gorako umeentzat izango da. Izena emateko epea larunbata artekoa da eta Kultur Etxean eman daiteke. Edozein zalantza duenak, Kultur Etxean bertan eska dezake informazioa.

Gorriti 
liburudenda



Prensa eta aldizkariak

Belate pasealekua, 1 • Tolosa • Tel.: 943 67 60 53

GIZARTEA ▶



Lehenengo urtean ere mahai jokoa antolatu zituzten. NEREA LIZARTZA

Ibarran eta Leaburun helduenen festak ospatuko dituzte

Ibarrako Bizi Nahi jubilatuen elkarteak lau egunetarako jaiak antolatu ditu; Leaburun, igandean egingo dute festa

NEREA URBIZU

Ibarra eta Leaburu izango dira festa bereziak ospatuko dituen; izan ere, jubilatuek antolatutako jaiak gainean dituzte. Ibarran, gaur hasiko dira, eta Leaburun, aldiz, igandean izango dute egun berezia.

Hala, Ibarrako Bizi Nahi jubilatuen elkarteak gaur eguerdiko hamabietan botako du txupinazoa eta jaiak iragarriko duten bandera altxako du.

16:00etan musa, tute, punttu eta eskoba txapelketa antolatu dute. 20:00etan, egoitzakoentzat luntxa izango da.

Biharkoan, 09:30ean adin-duentzako ibilaldi neurtua izango da, ondoren merezitako

hamaiketako izango dutelarik. Iluntzera arte itxaron behar dute beste ekintzaz gozatzeko; 20:00etan, bakailaoa tomatearekin eta piperrekin afaltzeko aukera izango dute.

Larunbatean, 11:30ean toka txapelketa izango da, bikoteka izanik. Irabazleek garaikurrak izango dituzte. Jarraian, indarberritzeko Ibarrako tomateak eta langostinoak izango dira.

18:00etatik aurrera bilobentzako jaiak antolatu dute jubilatuek, haurrentzako txokolata eta jolasak izango baitira.

Eta, bukatzeko, igandean 08:00etan diana izango dute, txistularien doinuak entzun ahal izango dituztelarik. San Bartolome elizan 11:00etan

meza ospatuko dute, urtean zehar hildako elkarteko bazkideen alde. 13:00etan, dantzariak izango dira, eta ondoren bazkaria, Ibarrako pilotalekuan. Dantzatzeo aukera izango dute bertan. 19:30ean suziria- ren hotsak bukatutzat emango ditu aurtengo jubilatuen jaiak.

Leaburun igandean

Igande biribila antolatu dute Leaburu-Txaramakoek ere, Udalarren laguntzaz. 12:00etan, meza ospatuko dute Leaburun. Ondoren dantza saioa ikusi ahal izango dute jubilatuek eta bertaraten direnek. Tokan jolasuko dute ere, han dagoen toka-jolaslekuan, noski. Uki daitekeen saririk ez badago ere, «ohorea dago jokoan», herriar batek dioten bezala.

14:00etarako bazkaltzera joateko prest izango dira. Are prestatuago jarraian entzun ahal izango den bertso musikatuaz gozatzeko: Irrintzi taldeak pantaila batean lehenengo bertsolarien irudia eta haien bertsoak ipiniko dituzte.

Inportantea da bazkaltzera joateko asmao dutenek izena udaletxean ematea, honela behar den janaria zenbat den kalkulatu ahal izango dute. Hau doakoa izango da.

PILOTA ▶

Probintzian lau pilota eskolen parte-hartzea

Lehenengo asteburuan garaipenak nahiz porrotak jaso dituzte eskualdeko ordezkariak

N. URBIZU

Hasi dira eskualdeko pilotariak Gipuzkoako Txapelketan. Emaizta gazi-gezak jaso dituzte lau pilota eskolek: Aurrera-Saiazek, Erniopek, Behar Zanak eta Zazpi-Iturrik, alegia.

Lehenengo jardunaldia jokatuta da eta ez dira emaitzak onegiak izan lau taldeentzat.

Guztiak azalpen logikoa ere du. «Uda igaro ondoren jendea ez dator ikasturtean bezain sendo, eta erritmoa hartu gabe datoz».

Pilota eskola askok hartzen

dute parte Gipuzkoako Txapelketan. Hauek dira batzuk: eskualdeko Aurrera-Saiaz, Zazpi-Iturri, Erniope eta Behar Zana, Eskoriatza, Eibar, Mundarra, Tartaloetxe, Urnieta, Real Sociedad eta Txapagain.

Aurrera-Saiazek 8 partidetatik 4 irabazi ditu. Zazpi-Iturrikoak kadeteen artean bina-kakoan ondo dabilta, baita juvenil eta seniorrekoetan ere.

Erniope juvenilen Lehenengo Mailakoetan indartsu hasi da, izan ere, 22-14 irabazi zuen. Bihar, partida gehiago.

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ HALTEROFILIA

Gipuzkoako Txapelketan goiko postuetan daude

Danena-Olaederrakoek onenak direla erakutsi dute Probintziakoan eta Elbarrenan



Teddy Martinez, Zizurkilgo Elbarrena Sarian pisua albatzen. HITZA

ERREDAKZIOA

XIV. Elbarrena Saria Zizurkilgo festetan egin zuten. Bertan Teddy Martinezek lortu zuen lehen postua, ondoren Igor Sasiain eta Gorka Lopez hirugarren. Europako 17 urte azpiko Txapelketan Sasiainek eta Jon Ander Iriartek plaka oroi-garri bana jaso zuten.

Gipuzkoako Senior eta Junior Txapelketak ere jokatuta zizurkilgarrek. Seniorretan, 85 kiloko mailan Gorka Lopezek irabazi zuen, eta 94 kilokoan Daniel Legorburuk. Saikapan orokorrean Lopezek lehenengo postua du ere,

eta Legorburuk, aldiz, hirugarren da.

Juniorretan, 62 kiloko mailan Igor Sasiainek irabazi zuen; 77 kilokoan Angel Martinek 1. postua lortu zuen, eta Mikel Kintanak bigarrena. 85 kilokoan, berriz ere, Teddy Martinezek eta bigarren, Jon Ander Iriartek. Azkenik, 94 kiloko mailan Julen Intxaustik lortu zuen lehen postua, eta atzetik Jokin Urkizu izan zen.

Gipuzkoako Junior Txapelketako saikapan orokorrean eskualdeko hiru geratu dira lehen postuetan: Teddy Martinez, Igor Sasiain eta Jon Ander Iriarte.

HITZA banatzeko jendea behar da Tolosaldean Tolosa, Ibarra, Villabona, Irura, Anoeta, Zizurkil eta Leitzarako.

LEHEN BAIT LEHEN

LAN-BALDINTZAK :

- Egunean 4 ordu.
- Goizeko 09:00etatik 13:00etara.
- Astean sei egun. Asteartetik igandera.

Interesatuak deitu telefono zenbaki honetara
943 30 35 33

LEITZA ▶ KIROLAK

Kanpoko aurreneko partidako puntuak ere Aurrerak irabazi ditu

Gazteen taldeak, bestalde, 2006-07 denboraldiko lehen jardunaldia jokatu du, Barañaingo Lagunak taldearekin



Elastiko arrastodunekin, Tijero lehen planoan —gazteen taldean ariko da aurrerantzean— eta Antolin, baloiaren bila, Arkixkilen San Inazioaren aurka jokatuako partidako une batean. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bitik bi irabazita, indartsu hasi du Aurrera futbol taldeak denboraldi berria, aurreneko jardunaldian Arkixkilen lortutako puntuari, azkeneko hontan herrietik kanpo jokatu duen lehendabiziko partidako ere gehitu dizkie eta. Leitzarrak, Berriozarko San Kristobalekin berdinduta —hauek ere jokatuko bi partidak irabazi dituzte— sailkapeneko lehen lekuetan kokatuta daude. «Emaitzekin ongi goaz», zioten.

Etxarri-Aranatzen egindako partidarekin hala ere, ez daude gustura Aurrerakoak. Azkenik puntuak berenganatu bazituzten ere, ez omen zuten-eta joko onik egiten asmatu. «Partidu nahiko trabatua» izan zela azaldu dute, «falta askokoa,

joko gutxi samarrekoa, ez partida ona». Etxarriarrek ere ez omen zuten asmatu: «Lehentazuzeko Mailatik jeitsitako taldea izan arren, eskarmentuko jokalariek taldea utzita, jokalariek gazteak sartu dituzte eta motel samar ibili ziren», iritzi diote.

Hala, partidako aurreneko zatian, 27. minutuan bertan sartutako golak erabaki zuen Aurreraren aldeko puntuen

banaketa. «Gol bikaina» izan omen zen gainera, Antton Gomezek sartutako hori: «Zelaren erdi parean alboko sake bat jaso eta zuzenean atera botatzea erabakita, atezaina aurreratu antza egoki, saretaraino sartu zuen».

Hurrengo etxean

Taldeak «osatuz» doala adierazi dute, bestalde. «Bi jokalarik zigorrak bete dituzte; min hartuta zeuden beste pare bat ongi daude», zehaztu. Horrela, etzi Ardoiren aurka jokatzeoak dira, Arkixkilen, 17:30ean. «Taldea honekin ez dugu inoiz jokatu, ez dugu ezagutzen, baina etxean jokatzeak abantaila piska bat emanen digu», zioten. Zizur Nagusiko talde honek denboraldian jokatu diren bi partidetan, bat galdu eta bestea irabazi egin ditu. Beraz, partida borrokatua izango da.

Aurrerako gazteen futbol taldeak ere asteburu honetan ekinen dio denboraldiari. Larunbatean, Barañainen jokatu du, 19:15etik aurrera, bertako Lagunak taldearen aurka.

Taldearen egoeraz azaldu dutenez, «orain arte handiekin aritu dira jokalariek gazte batzuk hango bajak estaltzen eta orain honera itzuliko dira; 2-3 berri ere hasi dira jokatzeko; beste 2-3 talde handira igo dira... Taldea nola geldituko den asteburu honetan ikusiko dugu».

Edozein moduz «iaz baino eskarmentu gehiago» izanen dutela baieztatu dute, iazko denboraldia lehendabizikoa izan zutela gogora ekarriz: «Asko ikasi genuen eta aurten hobekixeago ibiltzea» espero dute.

ARESO ▶

Uso postuen enkanteko lehen saioa etzi eginen da

19:00etan hasita, udaletxeko batzar aretoan eginen dute «ahots goraz»

ERREDAKZIOA

Etzi, larunbata, 19:00etan hasita eta Aresoko udaletxeko batzar aretoan egiteko dute, uso-ehizerako postuen enkanteko saioa.

Urteaga parajearen dauden 27 ehiza-postu aterako dituzte enkantera, 90 euroko gutxieneko irteera prezioarekin. Banaka-banaka ateraz, eta tantoka-tantoka —hobekuntza bakoitza 10 eurokoa izanen da—, eskaintza hoberekin egiten dituzten puja-tzaileentzat geldituko dira eta sextea delakoa, sei eguneko epea, gaudituz ondoren.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebexa: 672411

- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
- ▶ San Esteban: 006800
- ▶ Gernikako arbola: 006900
- ▶ Amaroako dispen.: 672637
- ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
- ▶ DYA: 672536
- ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzaran autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675885
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

ARESO ▶ HIRIGINTZA

Herriko kaleen zolaketa lanak esleituko ditu Aresoko Udalak

Bihar eguerdian eginen duten aparteko udal batzarrean hartuko dute akordio hori

ERREDAKZIOA

Areson, herri gunearien zolaketa lanak egitekoak dituzte eta hain zuzen ere, hango Udaletik jakinarazi dutenez, bihar bertan eginen dute lan horiek esleitzeko beharrezkoa den batzarra: aparteko deialdian, 11:30ean aurrena eta 12:00etan azkena, gai nagusi

hori izanen dute mahai gainean, besteak beste.

Hala, zolaketa lan horien inguruan hainbat akordio hartuko ditu udalbatzak, izan ere lan horiek egin ahal izateko «kontratuziorako espediente ireki» eta «egin beharreko gastua onartzeaz» gain, «lanen esleipena» ere egiten baitu. Zolaketa lan hauetarako aurrekon-



Eluseder industrialdeko zenbait lantegi. J. ASTIBIA

tua, 790.097,38 eurokoa izango da.

Bestalde, Eluseder industrialdeko handitzeko proiektua

ere abian dute, eremu horretako hainbat partzela salgai daudelarik. Horrela, anplazio horretako urbanizazio proiektuaren behin betiko onespina eztabaidatuko dute bilkuran, «Elusederera sartzeko errepide egiteko lanen proiektuarekin batera». Gai berari lotuta, «industrialdearen handiketa horren Repartzelazio Proiektuaren behin betiko onespina» ere hizpide izanen dute.

Hirigintzako gaiek ez eze, mendi hustiaketa ere badu tartea gai-zerrendan, ordea. Kasu honetan Meru parajearen dagoen pagadi baten ustiapenerako espediente ireki eta horren salmentarako baldintza administratibo eta tekniko enplikak ezarriko eta onartuko baitituzte.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko irailaren 21a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

23

hotzena

20

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Alkartasunak babarrun jatea antolatu du, hilaren 29rako, San Miguel egunerako. Izen-ematea egoitzen bertan, 18:30etik 20:00etara.

Ibarra. Hilaren 24ean burutuko den Ibarra, Azoka eta Piparra azokako antolatzaileek Tolosako artisauei parte hartzeko deialdia luzatu die. Izen-ematea, Kultur Etxean.

Ikaztegieta. 17:00etan, udal liburutegian, Bihotza, biziaren motorra hitzaldia, Kuxak antolatuta.

Irura. Bihar, buruhandi eta erraldoien kalejiran, 12 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute; izen-ematea, Gaztelekuan. 6 urtetik 11 urte bitartekoek etzi, egingo den kalejiran parte hartu ahal izango dute buruhandiz; liburutegian eman behar dute izena.

Tolosa. Aitzol udal euskaltegian izena emateko azken eguna, euskaltegian edo 943 65 10 06an.

ZINE-KLUBA

Villabona. Desayuno en Pluton filma ikusgai, 22:00etan, Gaztebxean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Lanbroa tabernan Charo Berraren artelanak ikusgai, hilaren amaierara bitarte.

Alegia. Patxi Tenak Kubako plastika eskola batetik ekarritako artelanak ikusgai, Jubilatuen tabernan, urriaren 4ra arte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Areso. Goizueta, F. Loidi ebrea. 112.
Ibarra. Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.

TELEBISTA

Txolarre irratiak

11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Jose Landarekin, Hitzaren errepaosa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskaniak...
18:00-19:00. Adi Guri irratsaioa, Anoeta Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleen saioa.
21:00-22:00. Zaharrak berri.
22:00-23:00. Street.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Finalistak gero eta gertuago

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Gaur amaitzen da argazkiak bidaltzeko epea; argitaratu ez diren guztiak ikusgai izango dituzue gure webgunean



'DEKORAZIO BITXIA' ▶

Imanol Arrieta (Etxarri-Aranatz).

Nafarroa aldetik heldu zaigu ondoko argazkia. Orainoan, Imanol Arrieta izan da egilea. «Cadaquesen egon ginen abuztuan (Girona). Paraje ederrak daude han. Bertan, itzalean marinelen emaztea iruditu zitzaigun, itsasoari ia itsabita. Hala ibiliko ziren lehengoak...», azaldu digu Etxarri-Aranatzeko lagunak.



'ORDESAKO PARKEA' ▶

Irantzu Etxarri (Villabona).

«Uztailean joan ginen Aragoiko Ordesako parkera (Espainia); bertan paisaia zoragarriki topatu genituen eta argazki asko atera genituen. Hau erabaki dugu bidaltzea, guztietan politena zelakoan. Benetan merezi du paraje hauek bisitatzea», azaldu digu Irantzuk.

'ERREALITATE GORDINA' ▶

Andoni (Leitza).

Andoni Tenerifeko (Espainia) Puerto de los Cristianos-en izan da eta argazki hau bidali du. Zera kontatu digu: «Kayuko bati argazkia atera nion, 90 pertsona zeuden bertan, oso baldintza txarretan. Poliziaetik ihes egiten saiatzen ari dira, hauek animaliei baino okerrago tratatzen baitie. Gurutze Gorrikoek, berriz, janaria eta arropa ematen dizkiete».



'CÔTE D'AZUR: ITSASO URDINA' ▶

Mari Jose Martínez Zugasti (Tolosa).

Kosta Urdinarekin liluratuta bueltatu da Mari Jose Martínez. Hauxe esan digu: «Abuztuan Côte d'Azur-en oporretan egon gara, hona hemen Nice-ko argazki bat. Ikusten duzuen bezala izugarriko itsasoa ikusi dugu, benetan urdina. Baita ere esan behar da, guk hemen gozatu dugun hondartzeekin geratzen garela».



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Iratzi Albeniz Arandia (Tolosa).
3 urte bete ditu gaur.
Zorionak etbako partetik.



URTE ASKOAN
Adur Larrinaga Gordo.
Gaur bi urte.
Zorionak!



ZORIONAK
Oihan (Ibarra).
Zure lehenengo urtean, zure aitaxo eta amaxoren partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza
TOLOSAN
Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza
LEITZAN
Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tarte

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...